


# GIPUZKOAKO XAKE FEDERAZIOAREN DIZIPLINA ARAUTEGIA

## Aurkibidea

GIPUZKOAKO XAKE FEDERAZIOAREN DIZIPLINA ARAUTEGIA .....	1
I. TITULUA.- DIZIPLINA AHALMENA.....	2
II. TITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK .....	2
I. KAPITULUA.- Xedapen Orokorrak.....	3
I. Atala    Definizioak.....	3
II. Atala   Erantzukizuna amaitzea.....	3
III. Atala  Erantzukizuna aldatzen duten egoerak.....	3
II. KAPITULUA  Joko arauak urratzea eta zigorrak.....	4
I. Atala   Jokalari, entrenatzaile, ordezkari eta zuzendariek eginiko arau-haustek eta zigorrak.....	4
II. Atala  Epaile Taldearen kideek eginiko Arau-hauste eta Zigorrak.....	5
III. KAPITULUA  Klubek eginiko arau-haustek .....	6
IV.  KAPITULUA  Kirol arau orokorren urraketa eta zigorrak.....	7
V. KAPITULUA  Kirol diziplinaren antolakuntza.....	10
I. Atala  Lehiaketa eta Diziplina Batzordea .....	10
II. Atala  Goragoko instantziak.....	10
III. TITULUA  DIZIPLINA PROZEDURAK .....	11
I. KAPITULUA  Printzipio nagusiak.....	11
II. KAPITULUA  Ohiko prozedura.....	12
II. KAPITULUA  Ezohiko prozedura .....	13
IV.  Jakinarazpenak eta errekurtsioak .....	14
XEDAPEN GEHIGARRIAK .....	15
AZKEN DEXAPENAK.....	16



## I. TITULUA.- DIZIPLINA AHALMENA

1.- Gipuzkoako Xake Federazioaren (aurrerantzea GXF) diziplina ahalmenaren jarduera bertan federatutako pertsona fisiko eta juridiko guztietara, hala nola Federazioaren egitura organikoaren barne dauden pertsona guztietara, zabaltzen da, baita federazioaren kideak diren edo bere egitura organikoaren barne dauden pertsona juridiko edo erakundeen ordezkari bezala jarduten duten haietara ere.

2.- Diziplina ahalmenaren eremua zabaltzen da joko edo lehiaketaren arauetako arau-hausteetara eta indarrean dagoen Euskal Herriko Kirol Legean tipifikatutako arau-hausteetara, eta horien ahala arautzen duten arautegiko xedapen publikoetan, Gipuzkoako Xake Federazioko Estatutuetan eta Arautegi honetan.

3.-

1.- Diziplina ahalmena litzateke Federazioak bere diziplinaren eraginpean dauden pertsonak ikertzeko eta, bere kasuan, zigortzeko duen onartutako eskumena.

2.- Diziplina ahalmena erabiliko da arau-hausteak gertatzen direnean GXFk antolaturiko jarduera edo lehiaketetan, eta hark ofizialtzat jotzen dituenetan.

## II. TITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

1. art.- Arau-hausteak bi motatakoak izan daitezke:

- 1.- Joko edo lehiaketa arauak urratzea.
- 2.- Kirol arau orokorrak urratzea.

2. art.-

1.- Joko arauak edo kirol arau orokorrak haustearen ondorioz espediente bat abian jarri eta ezartzen diren zigor guztiak berehala egikariturako dira, errekurtsio bereizleak ezagutu beharko dituzten federazio-, administrazio- edo eskumen-organismoek eskuragarri duten kaitelazko etetearen ahalmenari kalterik eragin gabe.

## I. KAPITULUA.- Xedapen Orokorrak

### 1. Atala Definizioak


3. art.- Joko edo lehiaketa arauak urratzen dituzten ekintzak dira GXFk antolaturiko jokoak edo lehiaketak kaltetzen, oztopatzen edo eteten dituztenak.

4. art.- Kirol arau orokorrak urratzen dituzten ekintzak dira aurreko atalean jaso gabeak eta honako hauetan jasotakoaren kontrakoak: indarrean dagoen Euskadiko Kirolaren Legea, diziplina ahalmena arautzen duten xedapen publikoak, GXFren Estatutuak eta araudi hau.

5. art.- Arau urratzaileak izan daitezke joklariak, entrenatzaileak, ordezkariak eta zuzendaritzako kideak; bai eta epaile taldeko kideak edo klubak ere.



KULTURA SALA  
DEPARTAMENTO DE DE CULTURA



## II. Atala Erantzukizuna amaitzea

6. art.- Erantzukizuna amaitzeko arrazoiak:

- 1.- Diziplina kirol erantzukizuna honako kasu hauetan amaituko da:
  - a) Zigorra betetzea.
  - b) Arau-haustearen preskripzioa.
  - c) Zigorren preskripzioa.
  - d) Erruztatu edo zigortuaren heriotza.
  - e) Erruztatutako edo zigortutako kirol erakundea desagertzea
  - f) Zigorra barkatzea.

2.- Federatu izaera galtzeagatik, ezarritako zigorren eraginkortasunean hainbat kasutan eragina izan badezake ere, ez du diziplina erantzukizunaren desagertzea ekarriko.

7. art.- Arau-hauste eta zigorren preskripzioa.

- 1.- Arau-hausteak hiru urte barru, urtebete barru edo hilabete barru preskribatuko dira arau-hauste oso larri, larri edo arinak badira hurrenez hurren; eta preskripzioaren epea arau-haustea burutu den egunetik aurrera kontatuko da. Etengabeko jarduera dagoen arau-hausteetan, zenbaketaren hasiera-data jardueraren amaierarena edo arau-haustearen amaierako azkeneko jarduerarena izango da.
- 2.- Preskripzio-epea prozedura zigortzailearen hasiera jakinarazten den unean etengo da. Prozedurak hilabete baino gehiagoan zehar geratuta irauten badu, prozedura horrekin lotutako pertsona edo erakunde arduradunari egotzi ez dakioken arrazoiarengatik, dagokion epea berriro martxan jarriko da.
- 3.- Arau-hausteak hiru urte barru, urtebete barru edo hilabete barru preskribatuko dira, arau-hauste oso larri, larri edo arinak badira hurrenez hurren; eta preskripzio-epea ebazpena, zeinengatik zigorra ezarri baitzen, irmoa izatera iristen den hurrengo egunetik aurrera edo hau hasita balego bere betetzea urratzen den unetik aurrera hasiko da kontatzen.

8. art.- Birgaitzea eskatzeko aukera onartzen zaie zigortuei, eta ondorioz, zigorra betetzen den unetik kontatutako hurrengo epeetako aurrekariak ezeztatzen dira:

- 1.- Sei hilabete barru, urraketa arina izango balitz.
- 2.- Bi urte barru, urraketa larriagatik izango balitz.
- 3.- Lau urte barru, urraketa oso larria izango balitz.

Zigorra ezarri zuen organo beraren aurrean eskatuko da birgaitzea, eta baliabide berdinekin burututako epaitze eta zigorrerako jarraitutakoa izango da prozedura.



## III. Atala Erantzukizuna aldatzen duten egoerak

9. art.- Joko edo lehiaketaren arauen aurkako arau-hausteei dagokienez ezar daitekeen erantzukizunaren arrazoi salbuesleak honakoak dira:


- 1.- Ustekabeko kasua.
- 2.- Ezinbestea.
- 3.- Eraso bat ekiditeko defentsa legitimoa.

10. art.- Erantzukizuna aldatzen duten arrazoiak.

- 1.- Diziplina erantzukizuna aldatzen duten arrazoiak aringarriak edo larringarriak izan daitezke.



- 2.- Kirol arau orokorren aurkako arau-hausteei dagokienez ezar daitezkeen arrazoi aringarriak ondorengoak dira:
- g) Arau-haustearen betekizunaren aurretik behar adinako probokazio bat egon izana.
  - h) Berehala damutzea.
  - i) Eragindako kaltea konpontzea, betiere garaiz egina eta bat-batekoa bada.
- 3.- Joko edo lehiaketaren arauen aurkako arau-hausteei dagokienez aplikatu daitezkeen arrazoi aringarriak ondorengoak dira, aurrekoez gainera:
- a) Bere kirol ibilbidean zehar inoiz zigortua ez gertatu izana.
  - j) Eginikoa baino larritasun urriagoko kaltea eragiteko asmoa.
- 4.- Kirol arau orokorren aurkako arau-hausteei dagokienez aplikatu daitezkeen arrazoi larriarriak ondorengoak dira:
- a) Errepikatzea.
  - b) Prezio.
- 5.- Aurrekoez gainera, joko eta lehiaketa arauen aurkako arau-hausteei dagokienez aplikatu daitezkeen arrazoi larriarriak ondorengoak dira:
- a) Arbitroen erabakiak berehala ez obeditzea, portaera hori arau-hauste bezala tipifikatuta dagoen kasuan izan ezik.
  - b) Eginiko arau-haustearen ondorioz partida baten garapen normala eragozteak.
  - c) Federazio-lizentziaren jabe izanik, ikusle, jokalaria, entrenatzaile ordezkari edo arbitro bezala edonolako arau-haustea egitea.
  - d) Aktan taldeko kapitaina bezala azaltzea.
  - e) Berrerortzea izatea. Berrerortzea egongo da autorea lehenagotik zigortua izan denean, denboraldian zehar, larritasun berdinean edo handiagoko edonolako arau-hauste edo diziplinaren ondorioz, edo dagokion arau-haustearena baino larritasun urriagoko bi arau-hauste edo gehiagoren ondorioz.
- 6.- Kirol diziplinaren ahalmena burutzerakoan diziplina-organoek zigorra egokitzen jotzen duten mailan ezarri ahal izango dute, ekintzen nondik-norakoa, pertsona arduradunaren nortasuna, arau-haustearen ondorioak eta zirkunstantzia larriarri edo aringarrien arabera.



## II. KAPITULUA Joko arauak urratzea eta zigorrak


### 1. Atala Jokalari, entrenatzaile, ordezkari eta zuzendariak eginiko arau-haustek eta zigorrak.

#### 11. art.- Arau-hauste oso larriak:

- 1.- Epaile taldeko kide bat edo zuzendari, kirol buru, taldeko kide, ikusle bati, edo orokorrean, edozein pertsonari eginiko eraso, ekintza hura larria edo kaltegarria denean; 1-5 urte bitartean gaitasungabetuko da.
- 2.- Partida behin betiko etetea eragiten duten jarduerak burutzea; 1-5 urte bitartean gaitasungabetuko da urratzailea eta lehiaketatik kanpo geratuko da.
- 3.- Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik ezarritako zigorrak urratzea; 1-5 urte bitartean gaitasungabetuko da urratzailea eta lehiaketatik kanpo geratuko da.

#### 12. art.- Arau-hauste larriak:

- 1.- Aurreko artikularen a) atalean aipatzen diren pertsonari eginiko eraso, betiere jarduera, bere larritasunagatik, arau-hauste oso larria ez denean; hilabete-urtebete bitartean gaitasungabetuko da.
- 2.- Epaile taldeko kide, zuzendari, kirol buruzagi, taldeko kide, entrenatzaile ikusle baten eta orokorrean edozein pertsonaren aurkako eraso, lehiaketatik kanpo geratuko da iraingarriak burutzea; hilabete-urtebete bitartean gaitasungabetuko da.



- 3.- Inolako arrazoirik gabe ez agertzea partida, proba edo lehiaketa batera; urratzailea kanporatu egingo da eta 100 €-ko isuna ezarriko zaio.
- 4.- Inolako arrazoirik gabe eta aurrez jakinarazi gabe partida, proba edo lehiaketa batera; urratzailea kanporatu egingo da eta 100 €-ko isuna ezarriko zaio.
- 5.- Arau-hauste arinagatik ezarritako zigorrak urratzea; hilabete-urtebete jardunalditarako gaitasungabetuko da eta 100 €-ko isuna ezarriko zaio.



13. art.- Arau-hauste arinak

- 1.-Epaileen erabakiekiko behin eta berriro kexa agertzea.
  - 2.-Epailearen aginduak betetzerakoan jarrera pasiboa edo axolagabea azaldu edo bere aginduak ez betetzea.
  - 3.- Jarrera pasiboa edo axolagabea federazioaren aginduak betetzerakoan.
  - 4.- Partida, proba edo lehiaketa batera ez agertzea arrazoiak emanda.
  - 5.- Partida, proba edo lehiaketa bat uztea aldez aurretik jakinarazita.
- Arau-hauste horiek eginez gero, ondoko zigorrak ezarri ahal izango dira:
- a)Aldi baterako gaitasunegabetze ofiziala, gehienez hilabeterako edo 4 jardunalditarako
  - b)Gehienez 50 €ko isuna
  - c)Jendaurreko ohartarazpena.
  - d)Ohartarazpena.

**II. Atala      Epaile Taldearen kideek eginiko Arau-hauste eta Zigorrak**

14. art.- Arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.


1.- Arau-hauste oso larriak:

- a) Taldeetako edo jokalarietako baten alde adierazitako alderdikeria frogatua.
- b) Partidako aktari dagokionez nahita eginiko idazkera, aldaketa edo manipulazioa burutzea, bere oharretan joko-eremuan gertatutakoarekin bat etorri ez direnak, informazio maltzur edo faltsua adieraziz.
- c) Partida, proba edo lehiaketa bateko emaitzak aldatzea edo manipulatzeari.
- d) Arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik ezarritako zigorrak urratzea;

Aldi baterako gaitasungabetu egingo da, 1-5 urte artean, epaile eskubideak galduko dira eta 500 € -1000 € arteko isuna ezar dakioko.


2.- Arau-hauste larriak:

- a) Partida batean bere eginkizunak bete nahi ez izatea edo esleipen bat ekiditeko kausa faltsuak argudiatzea; aldi baterako gaitasungabetu egingo da, hilabete eta urtebete artean.
- b) Partida batera justifikaziorik gabe ez agertzea; aldi baterako gaitasungabetu egingo da, hilabete eta urtebete artean, eta epaile eskubideak galduko ditu.
- c) Arautegiak aurreikusitako arrazoiak kontuan hartu gabe partida bat etetea; aldi baterako gaitasungabetu egingo da, hilabete eta urtebete artean, eta epaile eskubideak galduko ditu.
- d) Partida edo lehiaketa bateko aktak ez aurkeztea; kasu horretan, epaile eskubideak galduko ditu.
- e) Nahitazko epaile txostena ez egitea EXFren, Espainiako Xake Federazioaren eta Nazioarteko Xake Federazioaren balorazioetarako balio duten lehiaketetan, aipaturiko federazioek ezarritako epean; aldi baterako gaitasungabetu egingo da, 1-5 urte artean, epaile eskubideak galduko dira eta 200 € -500 € arteko isuna ezar dakioko.
- f) Arau-hauste arinengatik ezarritako zigorrak urratzea; aldi baterako gaitasungabetu egingo da, 1-5 urte artean, epaile eskubideak galduko eza dakioko




3.- Arau-hauste arinak:

- a) Edonolako begirunerik eza adierazten duen jardura edo edozein pertsonarengana irain adierazpenekin nahiz jarrera desegokiak zuzentzea, jendaurrean ohartaraztearekin edo hilabete arteko gaitasungabetzearekin zigortuko da.
- b) Talde partaideetako kideen kiroltasunaren aurkako jarreraren aurrean, jendaurrean azaltzea, jendaurrean ohartaraztearekin edo hilabete arteko gaitasungabetzearekin zigortuko da.
- c) Lehiaketa eta Diziplina Batzordeari ez jakinaraztea justifikatuz gabe ez-agertzeak, bai eta bestelako justifikazioak ere, 48 orduko epean, halakoetan, 50 € arteko zigorra ezarri ahal izango da.
- d) Araudiak ezarritako epearen barruan partida edo lehiaketa bateko emaitzak ez jakinaraztea, hartarako ardura izanda; jendaurreko ohartarazpena edo 50 € arteko zigorra ezarri ahal izango da.
- f) Nahitaezko epaile txostena ez egitea EXFren, Espainiako Xake Federazioaren eta Nazioarteko Xake Federazioaren balorazioetarako balio ez duten lehiaketetan, eta ezarritako epean; epaile eskubideak galduko dira eta 200 € arteko isuna ezarri ahal izango da.



### III. KAPITULUA Klubek eginiko arau-hausteak

#### 15. art. Arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke



1.- Arau-hauste oso larriak:

- a) Klub bat proba edo lehiaketa batetik inolako arrazoirik gabe erretiratzea; talde hori kanporaturik geratuko da eta hurrengo urtean kategoria bat beherago jokatu beharko du, baldin eta kategoria bat baino gehiago badaude.
- b) Klub bat joko eremutik erretiratzea inolako arrazoirik gabe behin partida hasita dagoenean, eta partida osorik joka dadin galaraztea; emaitzarik handienarekin galdutzat emango zaio eta jokatu gabe utzitako partida kopurua beste puntu kenduko zaizkio azken sailkapenean.
- c) Proba edo lehiaketa batean, urte berean, 12 jokalaria ez-agertzea; 200 €-ko isuna ezarriko da eta kategoria galduko da.
- d) Arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik ezarritako zigorrak urratuz gero, 200-1000 € arteko isuna ezarriko da.


2.- Arau-hauste larriak:

- a) Joko-arauen arabera beharrezkoak diren joko-eremuekin lotutako xedapen, baldintza eta elementu teknikoak ez betetzea, partidaren etetea edo ez jokatzera eragiten dutenean edo arduragabekeriagatik pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen dutenean; emaitzarik handienarekin galdutzat emango zaio partida eta 100-200 € arteko isuna ezarriko zaio.
- b) Publikoarekin lotutako gertaerak orokorrean, eta joko-eremura objektuak jaurtitzera modu berezian, hauek modu larri eta errepikatuan partidaren garapena eragozteaz gain, aldi baterako etetea eragiten dutenean edo bertaratutakoen segurtasun fisikoarekiko eraso direnean. 100-200 € arteko isuna ezarriko da, eta egoitza aldi baterako itxiko da, hilabete eta urtebete artean edo 4-12 jardunaldi artean.
- c) Jokalarien edo klubuen ordezkarien kirol-legerik gabeko jarrera onartzea. 100-200 € arteko isunarekin zigortuko da.
- d) Proba edo lehiaketa batean, urte berean, 8 jokalaria ez-agertzea; 100 €-ko isuna ezarriko da eta kategoria galtzeko ohartarazpena egingo da.
- e) Arau-hauste arinengatik ezarritako zigorrak urratuz gero, 200-200 € arteko isuna ezarriko da.

3.- Arau-hauste arinak:

- a) Izaera larri edo oso larria ez duten publikoarekin lotutako gertaerak 100 euro arteko isunarekin zigortuko da, eta hilabete baterako edo lau jardunalditarako itxiko da egoitza.

- b) Partida batean lizentzia edo lizentzia hori bideratzen ari denaren aldi baterako justifikazio-baimena eskuragarri ez izatea 100 euro arteko isunarekin zigortuko da.
- c) Proba edo lehiaketa batean, urte berean, 4 jokalar ez-agertzea 50 €-ko isunarekin zigortuko da.
- d) Lehiaketaren araudiaren arabera, ez dagokion jokalar batek jokatzeko badi Xake taula horretako partida galdutzat emango da, bai eta ondorengo tauletakoak ere, eta bago-, eta galdutzat emandako partida bakoitzeko puntu bakoitzeko 10 €-ko isuna sailkapenean.
- e) Ez azaltze partziala edo jokalariren bat ez agertzea partidara; agertu ez diren jokalaria adina puntu kenduko zaizkio sailkapenean.
- f) Partidaren akta epe barruan ez entregatzea, epailerik ez dagoenean eta hura entragatzeko arduraz izanda, 30 € arteko isuna.
- g) Emaitza epe barruan ez entregatzea, epailerik ez dagoenean eta hura entragatzeko arduraz izanda, 10 € arteko isuna.




#### IV. KAPITULUA Kirol arau orokorren urraketa eta zigorrak

##### 16. art.- Arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke

###### 1.- Arau-hauste oso larriak:


- a) Laguntza eta diru-laguntzak dagozkion oinarri edo emate-litzarmenetan ezarritakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- b) Laguntzak eta diru-laguntzak emateko benetako datu eta eskatutako dokumentuen aldaketa nabarmena.
- c) Esleipen edo eskumenen legez kanpoko usurpazioa.
- d) Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek eginiko arau-hauste oso larriak estatutu nahiz arautegietan jasotako eginkizunei dagokienez.
- e) Kirol instalazioen segurtasun eta higienezarekin lotutako federazio-arauek ez betetzea, hauetara bertaratzen diren pertsonentzako arrisku oso larria sorrarazten dutenean.
- f) Segurtasun eta arriskuak estaltzeko arauak betetzen ez dituzten kirol jarduerak antolatzea, jarduera horiek burutzeak hirugarrenentzako arrisku larria dakartenean.
- g) Gipuzkoako Xake Federazioko estatutuak, arautegiak eta hitzarmenak ez betetzea behin eta berriz nabarmen.
- h) Probetan edo lehiaketetan, ofizialak izan edo ez, epaile, kirolari, teknikari, kirol buruzagi edo beste hainbat parte hartzailearen aurka burututako eraso, indarkeria edo derrigortzea.
- i) Agintearen gehiegizko erabilera.
- j) Proba edo lehiaketa bat jokatzeko eragozten duen taldearen protesta, honek jardueren aldi baterako edo behin betiko etetea eragiten duenean.
- k) Indarkeria eragiten duten kirolari, teknikari, epaile nahiz zuzendarien adierazpen publikoak eta gainerako jarduerak.
- l) Kirol jardueraren garapenerako esleitutako fondo publikoei dagokienez nahita eginiko erabilera desegokia.
- m) Debekatutako substantzien sustapen, bultzatze eta kontsumoa hala nola debekatutako metodoen erabilera eta bere behar bezalako kontrola eragozten duen edonolako jarduera edo ez-gitea.
- n) Joko edo lehiaketaren emaitza, ofizialak izan edo ez, aurretiaz ezartzeko joera duten jarduera edo ez-giteak.
- o) Arau-hauste larri edo oso larriarengatik ezarritako zigorrak urratzea.
- p) Arau-hauste larriak errepikatzea.
- q) Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen Ebazpenak ez betetzea.
- r) Kirol modalitatearen garapen eta praktikarako eraso larria litzatekeen beste edonolako jarrera



- s) Arau teknikoaren aurkako kirol material edo ekipamenduaren manipulazio edo aldaketa, modu zuzenean edo tartean sartutako pertsona baten bidez, proba edo lehiaketaren segurtasuna alda dezaketenean edo pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen duenean.


2.- Arau-hauste larriak:

- a) Arau-hauste arinengatik ezarritako zigorrak urratzea.
- b) Bere zereginen ez-betetze oso larria ekarriko ez luketen diziplina edo kulturaren aldeko organoen kideen jarduerarik eza edo funtzioen utziera.
- c) Gipuzkoako Xake Federazioaren selekzioetako deialdietara justifikatu gabe ez-agertzea.
- d) Bere atzeratzea eragin gabe, proba edo lehiaketaren garapen normala aldatzen duen protesta oro.
- e) Epaile, teknikari, entrenatzaile, kirol autoritate, jokalaria edo bertaratzen den jendeari eginiko irain eta laidoak.
- f) Behar bezalako titulu edo baimenik gabe epaile eta teknikariek berezkoak dituzten jarduerak gauzatzea.
- g) Arau-hauste arinak errepikatzea.
- h) Dagokion baimenik gabe ofizialak izendaturiko kirol jarduera, proba edo lehiaketen antolaketa gauzatzea.
- i) Betetzen den funtzio edo jarduerarekiko bateraezinak direla adierazitako jarduera publiko edo pribatuak burutzea.
- j) Kirol lehiaren garapenak eskatzen duen duintasun edo ohorearen aurka modu erasotzaile nabarmenean burututako jarduera nabarmen edo publikoa.
- k) Kirol instalazioen segurtasun eta higieinarekin lotutako federazio arauak ez betetzea, hauetara bertaratzen diren pertsonentzako arrisku larria sorrarazten dutenean.
- l) Estatutu edo arautegiak, edo Gipuzkoako Xake Federazioaren hitzarmenak ez betetzea.
- m) Segurtasun eta arriskuak estaltzeko arauak betetzen ez dituzten kirol jarduerak antolatzea, jarduera horiek burutzeak hirugarrenentzako arrisku larriak ez dakartenean.
- n) Gipuzkoako lurraldean errotutako erakundeen artean, hamasei urtetik beherakoen atxikipen, luzapen, heziketa, konpentsazio edo antzekoen eskubideak eskatzeko debekuari dagokion ez betetzean parte hartzea.
- o) Eskumeneko pertsona eta organoetatik datozen agindu, hitzarmen eta instrukzioak ez betetzea.



3.- Arau-hauste arinak:

- a) Epaile, teknikari, kirol buruzagi, jokalaria edo bertaratutako jendeari modu desgokian oharra adieraztea.
- b) Bere funtzioak betetzen ari diren epaile eta gainerako kirol autoritateen aldetik jasotako agindu eta instrukzioak betetzerakoan jarrera pasiboa erakustea.
- c) Ez betetze arina suposatzen duten diziplina nahiz hauteskunde organoen kideek bete beharreko funtzioei dagokienez azaldutako jarduerarik eza edo utziera.
- d) Federazio antolakuntzan integratutako pertsona edo erakundeei eginiko adierazpen publiko lotsagabe edo iraingarriak.
- e) Oso larri edo larri kalifikazioan adierazita ez dauden kirol arauteriko modu nabarmenean aurkakoak diren jarrera haiek.



17. art.- Zigorrak.

Aurreko artikuluetan adierazitako arau-hausteei dagokionez, batzordeak aplika ditzakeen zigorrak ondorengoak izango dira:

1.- Arau-hauste oso larriak:


- a) Urtebete baino gehiagoko epean eta gehienez bost urterako lizentzia etetea.
- b) Lizentzia kentzea
- c) 6.000 € eta 60.000 € arteko isuna.
- d) Urtebete baino gehiagoko epean eta gehienez bost urterako kargu ~~edo zuzendariak~~ betetzeko gaitasungabetzea.
- e) Urtebete baino gehiagoko epean eta gehienez bost urterako proba ~~edo lehiaketak~~ jokatzeko direnean kirol instalazioetarako sarbidea debekatzea.
- f) Kirol esparrua ixtea hiru gutxienez hiru partidatarako eta gehienez denboraldi baterako.
- g) Kategoriaz jaistea.
- h) Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- i) Joko, proba edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- j) Jokoak, probak edo lehiaketak ateak itxita jokatzeko.
- k) Jardunaldi edo proba bat baino gehiagoren baliokideak lirakekeen puntu, partida edo sailkapen postuak galtzea.

2.- Arau-hauste larriak:

- a) Hilabete baino gehiagoko epean eta gehienez urtebeteraino lizentzia etetea.
- b) 600 € eta 6.000 € arteko kopuruaren isuna.
- c) Urtebeterainoko epean kargu eta funtzioak betetzeko gaitasungabe
- d) Urtebeterainoko epean proba eta lehiaketak jokatzeko instalazioetarako sarbidea debekatzea.
- e) Kirol esparrua bi partidaren eperaino ixtea.
- f) Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- g) Joko, proba edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- h) Joko, proba edo lehiaketak ateak itxita jokatzeko.
- i) Jardunaldi edo proba bat baino gehiagoren baliokideak lirakekeen puntu, partida edo sailkapen postuak galtzea.
- j) Ohartarazpen pribatua.
- k) Ohartarazpen publikoa.

3.- Arau-hauste arinak:

- a) Hilabete baterainoko epean lizentzia etetea.
- b) 600 €-rainoko isuna.
- c) Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- d) Joko, proba edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- e) Ohartarazpen pribatua.
- f) Ohartarazpen publikoa.



## V. KAPITULUA Kirol diziplinaren antolakuntza

### I. Atala Lehiaketa eta Diziplina Batzordea

18. art.- Federazioaren Diziplina gaiak Gipuzkoako Xake Federazioaren Lehiaketa Batzordeari dagozkio.

19. art.-

- 1.- Diziplina Batzordeak kide bakarra izango du: Lehiaketa eta Diziplina Epailea, eta Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du.
- 2.- Lehiaketa eta Diziplina Epailea lau urterako izendatuko da, lehendakaritza-aldi bakoitzaren hasieran. Epaileak karguan aritzeko behar adinako ezagutza eduki behar du.
- 3.- Gipuzkoako Xake Federazioaren idazkariak lagunduko du Lehiaketa eta Diziplina Epailea bere lanean.
- 4.- GXFren Zuzendaritza Batzordearen kideek ezingo dituzte Diziplina Epailearen funtzioak bete, ezta Euskadiko Xake Federazioaren Lehiaketa edo Apelazio Batzordeko kideek ere.
- 5.- Zuzendaritza Batzordeak aurreikusi egin beharko du Lehiaketa eta Diziplina Epailea nola ordeztu abstentzio, arbuizate edo ezinbesteko kasuetan, ordeztu epaile bat izendatuta.

20 art.- Lehiaketa eta Diziplina Epailearen eskumena da arau-haustetik eratorritako diziplina auziak lehenengo instantzian ebaztea, bai joko edo lehiaketa araei eta bai kirol arau orokorrei dagozkienak.

21. art.-


- 1.- Lehiaketa eta Diziplina Epailearen egitekoa da Espainiako Federazioaren arauak aplikatzean epaileek erabakitakoaren aurkako errekursoak ebaztea, banakako nahiz taldekako txapelketa azkarretan izan ezik.
- 2.- Lehiaketa eta Diziplina Epailearen egitekoa da epailerik ez dagoen eta interesatuen txostena idatzi duten txapelketetan sortzen diren eztabaidak ebaztea.
- 3.- Artikulu honetan aipaturiko kasuetan, Lehiaketa eta Diziplina Epaileak gertatu denaren gaineko txostena eskatu beharko dio titulazio nazionala edo goragokoa duen epaile bati.

### II. Atala Goragoko instantziak

22. art.- GXFko Lehiaketa eta Diziplina Epaileak erabakitakoen aurka helegiteak aurkeztu ahal izango dira Euskadiko Xake Federazioaren Apelazio Batzordean.

23. art.- Euskadiko Xake Federazioaren Apelazio Batzordeak erabakitakoen aurka helegiteak aurkeztu ahal izango dira Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

24. art.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak emandako diziplina hitzarmen eta ebazpenek administrazio-bidea agortzen dute, eta errekurtoa jarri dakieke administrazioarekiko auzi-bidearen eskumenaren aurrean aplikagarriak diren zuzenbide arauen arabera.




### III. TITULUA DIZIPLINA PROZEDURAK

#### I. KAPITULUA Printzipio nagusiak

##### 25. art.- Diziplina prozedurak

- 1.- Diziplina erantzukizunen garbiketa ohiko prozedura nahiz ezohiko prozeduraren bidez gauzatuko da.
- 2.- Ezohiko prozedura, lehenasunezko eta sumarioko irizpideetan oinarritua, bereziki joko- edo lehiaketa-arauekiko arau-hausteetan aplikatu daitezke, eta epailek aurkezturiko errekursoetan eta epailek ez dagoenean sortzen diren eztabaidetan.



##### 26. art.- Diziplina eta zigor erantzukizunen aldiberekotasuna.

- 1.- Diziplina Epaileak, ofizioz edo interesatutako alderdiak eskatuta, Ministerio Fiskalari delitua edo zigor penala izan litezkeen ekintza haiek jakinaraziko dizkio. Kasu horretan, Batzordeak prozedura etetea adostuko du dagokion ebazpen judiziala ezartzen zaion arte.
- 2.- Aurrekoa hala izanik, Diziplina Batzordeak beharrezko kautelazko neurriak hartu ditzake.

##### 27. art.- Diziplina eta administrazio erantzukizunen aldiberekotasuna.


- 1.- Ekintza berak Kirolaren Legean araututako administrazio-erantzukizun eta bere garapenerako jendaurreko Arautegi nahiz Arautegi honetan aurreikusitako diziplina erantzukizunetarako bidea eman ahal izango balu, Gipuzkoako Xake Federazioaren Diziplina Batzordeak, ofizioz edo parteak eskatuta, eskumeneko administrazio organoari jakinaraziko lioke, hori guztia diziplina prozedura bideratzeari kalterik eragin gabe.
- 2.- Epaileak administrazio erantzukizunerako bidea eman dezaketen ekintzak ezagutzen dituenean, eskumeneko organoetan aurrekariak jakinaraziko ditu.

##### 28. art.- Kautelazko neurriak

- 1.- Era berean, Epaileak ahalmena izango du, espedientea abian jartzean, kautelazko neurriak adosteko, betiere epaiaren eraginkortasuna babesteko edo kalte konponezin bat saihesteko beharrezkoak direnak. Neurri horiek indarrean egongo dira espedientea tramitean dagoen bitartean eta harik eta hura ebatzi arte, eta interesatuei jakinarazi beharko zaizkie, helegiterik aurkeztu nahi izanda ere.
- 2.- Ezingo dira kautelazko neurriak hartu baldin eta legeak babeste dituen eskubideak urratzen badira.


##### 29. art.- Atzera egitea

- 1.- Interesatuek bere nahiei dagokienez atzera egin dezakete prozeduraren edozein fasetan, baina atzera egiteak adieraziko zukeenari dagokionez soilik izango luke eragina.
- 2.- Atzera egitea Epailearen aurrean adierazi beharko da, bai idatziz edo bai ahoz agerraldiaren bidez, eta azkeneko kasu honetan dagokion izapidea zabaldu eta izenpetu beharko litzateke.
- 3.- Atzera egiteak diziplina espedientearen amaiera eta artxibatzea ekarriko du, eskaera hori adierazi ez duten beste interesatu batzuek egongo liratekeenean edo Epaileak interes orokorreko arrazoiei jarraiki prozeduraren jarraipena hitzartuko lukeenean izan ezik.



30. art.-

- 1.- Partidetako edo lehiaketetako epaileek izenpeturiko aktak edo txostenak izan behar dira gertatu diren arau urraketen berri jasoko duten dokumentu beharrezkoak izan behar izango dute horien gehigarriek edo argibideek, betiere epaileek eurek izenpeturiko baldin badaude, ofizioz edo diziplina organoek eskaturik.
- 2.- Nolanahi ere, prozedurarako eta ebazteko garrantzitsuak diren gertakariak edozein frogaren bidez egiaztatu ahal izango dira, eta ofiziozko Epaileak edo interesatuak edozein froga eskatu edo zuzenean eurek aurkeztu ahal izango dute, espedientearen bidez bezala ebazte aldera.
- 3.- Epaileak informazioa eskatu ahal izango dio Federazioko edozein batzorderi edo organori, auziaren nondik norakoak argitzeko.



31. art.- Pertsona edo entitate batek ikusten badu diziplina prozedura bat bideratzeak beren eskubideak edo interesak kaltetzen dituela, auzian parte hartu ahal izango du Epaileari idatzi bat bidalita; eta harrezkero interesatu izaera izango du eta jakinarazpenak, proposamenak eta abar jasoko ditu.

32. art.- Epailearen ebazpenak arrazoituak izan beharko dira, gertakarietan eta zuzenbidean oinarrituak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri eman beharko dute, non aurkeztu behar diren eta zer epeetan.

33. art.- Kasu berezietan, Federazioko diziplina organoek luzatu egin ahal izango dituzte aurreikusitako epeak, baina luzapenak ezingo du gainditu ezarritako epearen erdia baino gehiago.


## II. KAPITULUA Ohiko prozedura

34. art.-

- 1.- Kirol diziplina prozedura, kapitulu honetan araututakoa, Epaileak hasiko du, erabakiaren bidez.
- 2.- Erabakiak, gutxienez, ondorengo datuak izango ditu
  - a) Espediente-irekitzea eragin duten ekintzez gainera hauek gertatutako datari dagokion erreferentzia laburra.
  - b) Espediente-irekitzearen data.
  - c) Interesatuak eta kaltetuak.
  - d) Jadanik hartutako kautelazko neurriak, hala badagokio.
  - e) Epaileak adierazitako proba-baliabideak edo espedientearekin batera doazen dokumentuak, honek edo hirugarrenek eskatutakoak, hala badagokio.
- 3.- Epailearen erabaki hori interesatuei jakinarazi beharko die epailearen dazkariak, eta izendatu gabe badago, GXFkoa izango da.

35. art.-

- 1.- Epaileari administrazio orokorraren prozedurarako indarrean dagoen legerian aurreikusitako abstentzio eta ezespren auziak aplikatu dakizkieke.
- 2.- Ezespenerako eskubidea Epailearen aurrean gauzatu daiteke, hiru eguneko epean, espediente-irekitzearen erabakiaren berri izaten den hurrengo egunetik kostatzen hasita.
- 3.- Epaileak zuzenbideraren arabera dagokiona hitzartuko du bost eguneko epean, eta ebazpenaren aurka dagozkion errekurtsuak adierazterakoan.



36.art.- Epaileak salaketa jasotzen duenean edo balizko arau-hauste baten berri izaten duenean, espedientearen hasierari dagokion erabakia edo bere kasuan, espedientea artxibatzearen erabakia eman aurretik, gordetako informazioaren instrukzioa hitzartu dezake.

37. art.-

- 1.- Espedientea irekitakoan, eta espediente-irekitzearen erabakia jakinarazita, eta bere kasuan beharrezkoak liratekeen kautelazko neurriak hartzeari kalterik gabe, Epaileak, jakinarazpenaren ondorengo hamar (10) egunen barnean, lege tasara irerikiko du, hoge (20) egun baino gehiago eta bost baino gutxiago hartuko epean, zeinetan ekintzak argitzeko eta hauetatik eratorritako erantzukizunak zehazteko behar adina proba-izapide burutuko baitira, Epailearen ardura izango da burutu beharreko proba-izapideak zehaztea, bai berak eskatuta edo bai aurreko paragrafoan adierazitako epearen barnean interesatuek idatziz aurkeztutako eskaera nahiz proposamenari jarraiki; interesatuei agindutako edo onartutako probak zein toki, egun eta ordutan jokatu diren jakinarazi beharko zaie.
- 2.- Espedientea bideratu eta ebazteko ekintza garrantzitsuak zuzenbidean onar daitekeen edozein probaren bidez frogatu daitezke.
- 3.- Proba-praktikaren onartze edo ukatzeari buruzko Epailearen erabakien aurka ez da inolako errekurtsorik onartuko, interesatuaren aldetik bai ebazpenaren aurretiazko entzute-izapidean eta bai ebazpen horren aurka burutzen eta adierazten diren errekurtsotan gauza daitekeen bere eskaeraren errepikapenerako kalterik gabe.

38. art.-


- 1.- Burututako jarduerak ikusita, Epaileak, proba-epaia amaitzen denetik ondorengo hamar (10) egunen barnean, kargu-orria adieraziko du, zeinetan egotzitako ekintzak, bere kasuan praktikatu liratekeen proben emaitza, eta espedientearen ebazpen proposamena adieraziko baitira. Hori guztia interesatuei jakinaraziko zaie, jakinarazpenaren egunetik hasita hamar (10) egunen epean bere eskubide eta interesak babesteko komenigarria iruditzen zaiena adierazteko.
- 2.- Kargu-orri eta ebazpen proposamenari erantzunez, edo interesatuen aldetik izapidea bideratu gabe adierazitako epea beteko balitz, Epaileak hamar eguneko epean ebaziko du auzia.
- 3.- Ebazpena eman aurretik, Epaileak bere une egokian interesatuek proposatuko lituzketen eta proposatzen zuenari egotzi ezinezko edonolako arrazoiren batengatik azkenean praktikatzera iritsiko ez liratekeen proba-izapideen praktika agindu dezake, hobeto hornitzeko eta ebazpena eman ahal izateko.

39. art.- Ebazpenak espedienteari amaiera emango dio, apelazioari kalterik egin gabe.

## II. KAPITULUA Ezohiko prozedura


40. art.-

- 1.- Epaileak ebaziko du, ezohiko prozedura erabiliz, partida, proba edo lehiaketetan gertatu diren gorabeheren gainean, eta zigorrak ezarriko ditu araudi honen arabera.
- 2.- Era berean, prozedura bera erabiliz erabaiko du epaileen erabakiei aurkezturiko errekurtsotetan eta epailerik ez dagoenean sortzen diren eztabaidetan.



41. art.-

- 1.- Aurreko artikuluan aipatzen diren esku-hartzei dagokienez, lehiaketa bat behar bezala garatzeko Epailearen berehalako erabakia eskatzen bada, aldi berean burutu ditzake interesatuen alegazioei dagozkien izapideak, hau ahozkoa izateko agindu dezakeelarik; eta epailearen aurrean agertu beharko dira alegazioak, partidaren aktan eta eranskinetan jasotakoarekin lotuak.
- 2.- Horretarako eskubidea lehiaketa edo partida jokatu eta hirugarren eguneko 30etan amaituko da.
- 3.- Epe bera egongo da lehiaketa edo partidaren geratu diren balizko arau urraketan aurkako erreklamazioak aurkezteko.
- 4.- Epaileak halaber aldi baterako eteteak agindu ditzake, baita beharrezkoa litzatekeen beste edonolako kautelazko neurri ere.
- 5.- Beti babestuta geratuko da interesatuen aurretiazko entzutearen irizpidea, baita dagokien instantzien bidez hartutako erabakien aurka hauen errekurritzeko eskubidea ere.



KULTURA SALA  
Kiri Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

42. art.-

- 1.- Aurreko artikuluetan jaso ez diren urraketan kasuan, gertakari larriak badira edo esku-hartzea premiazkoa bada eta ezohiko prozedura erabiltzen bada, Epaileak espedientea ireki dela jakinaraziko dio interesatuari, eta salaketaren edo erreklamazioaren zergatia helaraziko dio, gehienez ere 10 eguneko eta gutxienez 5 eguneko epean egoki irizitako alegazioak edo frogak aurkez ditzan.
- 2.- Behin alegazioak jaso eta proposaturiko frogak edo Epaileak erabakitakoak gauzatu eta onartu ondoren, Epaileak ebazpena emango du 10 eguneko epe luzaezinean.


#### IV. Jakinarazpenak eta errekurtsioak

43. art.-

- 1.- Diziplina prozeduretan emandako erabaki eta ebazpenak motibatuak izateaz gainera interesatuei jakinarazi beharko zaizkie, ahalik eta eperik laburrenean, gehienez ere bost (5) eguneko epean.
- 2.- Jakinarazpenak interesatuen helbidean edo gizarte egoitzan burutuko dira, gutun ziurtatu, telegrama edo interesatu horiek hartu duten ziurtasuna eman dezakeen beste edonolako komunikabideren baten bidez.
- 3.- Ebazpenek ez dute eraginik izango interesatuengan harik eta jakinarazten zaien arte, araudi honetako 41. artikulua aintzat hartzen duten ebazpenen kasuan izan ezik. Kasu horretan nahikoa izango da federazioaren lokalean jendaurrean ikusgai jartzea eta GXFren webgunean argitara ematea, hori guztia aipaturiko jakinarazpena gauzatzeari kalterik eragin gabe.

44. art.- Aurreko artikuluan adierazitako jakinarazpena kontuan hartu gabe eta lehiaketak nahiz probak interesgarriagoak izan daitezten eta hobeto funtziona dezaten, Epailearen ebazpenak GXFren webgune ofizialean argitaratuko dira, pertsonen eta erakundeen ohore nahiz intimitate eskubidea errespetaturik, indarrean dagoen legeriaren arabera.

45. art.- Aurkezten diren eskaerak, erreklamazioak edo errekurtsioak, gehienez hamabost eguneko (15) epean ebatzi beharko dira, edo epe horretan hasiera eman beharko dio diziplina prozedurari, ikerketa gauzatzeko, eta gehienez ere hogeita hamar (30) eguneko epean amaitu beharko da.

  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Kiri-jetako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior  
ZIURTATZEN DUT erregelamendu hau kirol alorraren eskumena duen  
Gipuzkoako Foru Aldundiko foru organoak onartu duela gaur.  
CERTIFICO que con fecha de hoy el presente reglamento ha sido aprobado por el  
órgano foral competente en materia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.  
Donostia-San Sebastián, ..... 2007 .....  
Idazkari Teknikoa / El Secretario Técnico

46. art.-

1.- Epailak erabakitakoen aurka helegiteak idatziz aurkeztuko dira GXFren helbidean edo egoitzan, edo Euskadiko Xake Federazioan, Euskadiko Xake Federazioaren Apelazio Batzordeari zuzendurik. Ohiko administrazio prozedura arauak dituzten xedapenetan aurreikusitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.



2.- Idazkiek, zeinetan erreklamazioak edo errekurtsioak formalizatuko diren, baimenaren izango dituzte:

DEPARTAMENTO DE DE CULTURA  
Dirección de Deportes

- Erreklamazioa edo errekurtsioa aurkezten duenaren nahiz interesatuaren dauden gainerakoen identifikazio datuak, bere legitimazioa, aktiboa edo pasiboa, justifikatuta.
- Ekintza, hitzarmen edo ebazpenaren adierazpen garbia zeinen aurka erreklamatu edo errekurritzen baita; adierazita egongo balitz bere kopia erantsiko da, edo, gutxienez, erreklamatu edo errekurritzen den espedientearen zenbakia hala nola jarduera, hitzarmen edo ebazpenaren data adieraziko dira.
- Erreklamazioa edo errekurtsioa motibatzen duten alegazioen adierazpena, eta funts nahiz arauena zeinetan hura oinarritzen baita.
- Proba-izapideak zein, bere kasuan, praktikarako proposatuko baitira.
- Eta adierazten diren nahien adierazpen zehatza.

3.- Ohiko prozeduraren bidez tramitatzen den espediente baten aurka errekurtsioa jartzeko epea hamar (10) egunekoa izango da, jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

4.- Ezohiko prozeduraren bidez tramitatzen den espediente baten aurka errekurtsioa jartzeko epea bost (5) egunekoa izango da, jakinarazten edo argitaratzen denetik (ikus 43. artikulua) kontaktzen hasita.

5.- Euskadiko Xake Federazioaren Apelazio Batzordeak errekurtsioa ebazteko epea Diziplina Araudian (edo antzekoan) jasotzen dena izango da.

47. art.- Errekurtsioa aurkezteak ez du errekurritzen den erabakiaren betetzea etengo, EXFren Apelazio Batzordeak, bai ofizioz edo interesatuak hala eskatu izanagatik, hala hitzartzen duen kasuan izan ezik.


48. art.- Gipuzkoako Xake Federazioak ezarritako zigorren liburu edo erregistro bat izango du eskuragarri, ezagutzeko, bere kasuan, ezarritako zigorraren berri, baita zein data duen ere; bere preskripzio garaia; aldatzeko arrazoiaren aldiberekotasuna eta birgaitzeko eskubidearen jarduera.

49. art.- Aplikagarria izango da, izaera osagarriarekin, Euskal Herriko Kirolaren Legean eta kirol diziplina arautzen duten arautegi publikotan xedatutakoa, 30/1992 legean, ohiko administrazio-prozeduraren erregulazioari buruzkoan xedatutakoa eta, bere kasuan, Gipuzkoako Xake Federazioaren Estatutuetan aurreikusitakoa.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK


LEHENA: araudi honetan azaltzen diren epe guztiak egun naturaletan kontatuko dira, berariaz besterik adierazten ez bada.

BIGARRENA: GXFk egoitza duen hirian jaieguna den egunen batean amaitzen bada epereen bat, automatikoki luzatuko da, hurrengo lanegunera arte.




# AZKEN DEXAPENAK

LEHENA: Indargabetuta geratzen dira GXFk Kirol Diziplinaren gainean onarturiko marra bereko edo beheragoko xedapen guztiak. Berariaz indargabeturik geratzen dira GXFren 2007-07-14ko Batzar Nagusiak onartu zuen Diziplina araudia eta GXFk aurretik eduki dituen diziplina araudi guztiak.



BIGARRENA: "Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoak onartu eta biharamunean".

Donostia, 2010eko martxaoren 14a.

 Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kirolenako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior

ZIURTATZEN DUT erregelamendu hau kirol alorraren eskumena duen  
Gipuzkoako Foru Aldundiko foru organoak onartu duela gaur.

CERTIFICO que con fecha de hoy el presente reglamento ha sido aprobado por el  
órgano foral competente en materia de deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, 2010.03.14  
Idazkari Teknikoa / El Secretario Técnico